

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

69/2019 Foru Agindua, martxoaren 5koa, onesten duena 2019an material ez-suntsikorra erosteko Arabako kirol federazioetarako dirulaguntza deialdia

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako kirol federazioei dirulaguntzak eman nahi dizkie 2018ko uztailearen 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean (bi egun horiek barne) material ez-suntsikorra erosteko.

Horretarako, nahitaezkoa da jarduera federatuek bete beharreko araudia zehaztea, sailak dirulaguntza egokiak bidera ditzan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa- Onestea Arabako kirol federazioei dirulaguntzak emateko deialdia, zeina 2018ko uztailearen 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean (bi egun horiek barne) kirol material ez-suntsikorra erosteko baita- Deialdiaren gehieneko hornidura hamabost mila euro (15.000,00 euro) izango da- Hori guztia arautuko da, batetik, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehia bidezko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi zituenak (2015eko urriaren 21eko ALHAOren 123- zenbakian argitaratua) xedatutakoaren arabera, eta bestetik, foru agindu honen eranskinean jasotako berariazko oinarrien arabera.

Bigarrena- Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontu antolamenduko partida honen kontura emango dira: 70.1.06.7700.781.00.01 ("Kirol federazioetarako laguntza; zuzkidura"), 70-120 lerroa, 105.832/19.5.19 xedapen erreferentzia.

Hirugarrena- Organo eskudunak emango du dagokion ebazpena, Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertuta; lau hilabeteko epea du ebazpena emateko, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita- Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123- artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean egin dakioko aurka administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena- Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 42- eta 43- artikuluetan ezartzen dituen moduetan.

Seigarrena- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 5a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

Eranskina

Arabako kirol federazioetarako dirulaguntzen deialdia,
2019an material inbentariagarria erosteko

Lehena- Xedea eta helburua

Deialdiaren xedea da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Arabako kirol federazioek 2018ko uztailaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean (bi egun horiek barne) kirol material inbentariagarria erosten sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko- Hori guztia, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, xedatutakoa kontuan hartuta egingo da.

Bigarrena- Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere helburu horretara bideratu den zuzkidura baino gehiago, hau da, 15.000,00 euro baino gehiago- Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko gastu aurrekontuko "Kirol federazioetarako laguntza; zuzkidura" izeneko 70.1.06.77.00.781.00.01 partidaren kontura ordainduko da.

Hirugarrena- Erakunde onuradunak eta baztertuak

Onuradun izango dira Arabako kirol federazioak.

Ez dira onuradun izango, ez Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, hirugarren oinarrian jasotako bazterte egoeretan dauden erakundeak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, araututako egoeraren batean daudenak ere.

Laugarrena- Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak

Diruz laguntzekoak izango da 2018ko uztailaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean (bi egun horiek barne) erositako kirol material inbentariagarria- Horrelakotzat joko da kirola egiteko ondasun higigarri ez-suntsikorra, hau da, duen helbururako erabilera normalarekin kontsumitzen ez dena.

Laguntza eskaerako kirol material inbentariagarria kirol federazio eskatzailearena izango da, eta, era berean, beharrezkoa, kirol hori egiteko- Edonola ere, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa material hori erostea.

Horrenbestez, ez dira diruz lagunduko honako hauek:

- Honako kirol ekipazioa: elastikoak, kulotak, izerditakoak, txandalak, bainujantziak, botak, zapatilak, puntak eta antzeko materialak.

- Era guztietako mugikorrek eta tresnak: pilotak, baloiak, hegalaria, bolak, boloak, bateak, eskularruak, erraketak, palak, eski oholak, makuluak, patinak eta antzeko beste batzuk.

- Norberaren erabilerarako materiala, hala nola barrabil babeskiak, hortz babesak, puntak, betaurrekoak, eta antzekoak.

- Kronometrajearekin lotutako materialak (bai eskukoak, bai elektronikoak), arbitraje mahaiak eta aulkiak eta antzeko beste batzuk.

- Ikus-entzunezko materialak: argazki kamerak, bideo kamerak, bideo irakurgailuak eta irudi irakurgailuak oro har, pantailak, bozgorailuak, megafonoak, musika gailuak eta antzeko beste batzuk.

- Bulego materiala, material eta ekipo informatikoak, programa informatikoak eta antzeko beste batzuk.

- Baloiak eramateko gurdiak, espazio mugatzaileak, hegalak, apaingarri estetikoak eta antzeko beste batzuk.

- Ditutzen ezaugarri fisikoengatik instalazio bateko ekipamendu finko batenak diren materialek: belar artifizialezko zoruak, horma barrak, markagailuak, segundo markagailuak, saskiak, ateak eta antzeko beste batzuk.

- Oro har, entrenamenduetan nahiz lehiaketetan kirola egiteko ezinbestekoa ez den edozein material.

Ez dira diruz lagunduko Arabako Foru Aldundiko edozein sailek zein haiei atxikitako edo haien eskumenekoak diren edozein erakundek sustatutako beste programa edo ekimen batzuetako inbertsioak.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari edo justifikatzeari dagokienez, honako gastu hauek: zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

Bosgarrena- Eskabideak aurkeztea

1- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidaliko zaizkio eskaerak, I- eranskinean argitaratzen den ereduaren arabera- Oso-osorik bete behar da eta honako jarraibideen arabera:

1.1- 1- orria: Erakunde eskatzailearen datuak, posta bidezko jakinarazpenak egiteko helbidea eta legezko ordezkariaren datuak- Pertsona hori eta "Eskaera aurkezten duen pertsonaren erantzukizunpeko adierazpena" izeneko 2- orrian aipatzen dena pertsona bera izan behar dira.

1.2- 2- orria: "Eskaera aurkezten duen pertsonaren erantzukizunpeko adierazpena", zeinaren bidez egiaztatzen baita aipatzen den pertsonak erakunde eskatzailearen baimena duela hura ordezkatzeko- Horrekin batera eskaera sinatzen duen ordezkariaren NANaren fotokopia aurkeztuko da.

1.3- 3- orria: Erakunde eskatzaileari alta eman behar izanez gero edo hirugarrenen kontabilitate fitxategian dauden datuak eguneratu behar izanez gero, honako datu hauek aurkeztuko dira:

— Bankuko kontuaren zenbakia, IBAN kodearekin- Agiri horrek banku erakundearen zigilua izan behar du, bankuko kontu zenbakia erakunde eskatzailearena dela egiaztatzeko.

— Identifikazio fiskaleko txartelaren (IFZa) fotokopia- Erakunde eskatzaileari alta eman behar izanez gero baino ez da aurkeztuko.

1.4- 4- orria: Eskuratutako materiala, zein instalaziotan jarriko den, erosketaren agiria, gastu konputagarrien aurrekontua, eskatzen den zenbatekoa eta diru sarreren aurrekontua.

1.5- 5- orria: Erakunde eskatzailearen lan eta zerga egoerari buruzko datuak, eta erakunde onuradunaren konpromisoa, eskuratutako ondasuna onik zaintzeko eskuratu eta hurrengo hiru urteetan, gutxienez, eta epe horretan inbertsioaren xedea ez aldatzeko konpromisoa.

1.6- 6- orria: Oharrak eta eskaera aurkezten denean hartzen diren konpromisoak.

2- Kirol material inbentariagarriaren erosketaren faktura(k) eta, hala dagokionean, horren ordainagiria.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

3- Beharrezkoa da fakturak jatorrizko formatuan aurkeztea; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez igorritakoak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoz bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.

4- Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren frogagiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna- Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edo bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikokoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritzaren gune, autobide, bidaia txartel eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigilua jarrita, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaloa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

5- Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik baldin bada, egiaztatu beharko du bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola- Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundearen egiaztagiria aurkeztuko ditu- Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz- Zerga betebeharrak dagokienez, erakunde onuradunak Araban badute sozietatearen egoitza, nahikoa izango da egunean dituztela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

6- Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikiararako ezarritako zenbatekoa baino, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die,

gutxienez, hiru erakunde hornitzaile, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala dagokionean, dirulaguntzaren eskabidean; haien artean hautatzeko irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira- Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira, beren-beregi, memoria batean.

7- Eskaerak, hala, ez badituzte betetzen adierazitako baldintza horiek, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak erakunde interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko- Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

8- Eskaera bat baino ez da egingo erakunde eskatzaile bakoitzeko.

Seigarrena- Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 1ean hasiko da eta uztailaren 31n amaituko da.

Zazpigarrena- prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

1- Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espediente bideratzeko organo eskuduna.

2- Balioespen irizpideak.

Aurkezten diren inbertsio proiektuak balioesteko, jarraian adierazten diren irizpideak eta balioak erabiliko dira, gehienez 10 puntu daudela:

GASTU KONPUTAGARRIEN AURREKONTUA	PUNTUAK
0,01 euro eta 500,00 euro bitartean	1
500,01 euro eta 1.000,00 euro bitartean	2
1.000,01 euro eta 1.500,00 euro bitartean	3
1.500,01 euro eta 2.000,00 euro bitartean	4
2.000,01 euro eta 2.500,00 euro bitartean	5
2.500,01 euro eta 3.000,00 euro bitartean	6
3.000,01 euro eta 3.500,00 euro bitartean	7
3.500,01 euro eta 4.000,00 euro bitartean	8
4.000,01 euro eta 4.500,00 euro bitartean	9
4.500,01 euro baino gehiago	10

Dirulaguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema erabiliko da- Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa eskatzaile guztiek lortutako puntuen artean zatituko da- Horrela puntuaren balioa zein den jakingo dugu- Laguntzaren zenbatekoa ateratzeko, berriz, eragiketa hau egingo da: puntuaren balioa bider eskaera bakoitzaren puntu kopurua, betiere zenbateko horren eta gainerako diru sarreraren baturak ez badu gainditzen inbertsioaren kostua.

3- Honako muga hauek ezarriko dira:

– Aurkeztutako fakturen guztizko gastuei jasotako guztizko sarrerak kenduta lortzen den emaitza.

– Eskatzaileak adierazitako muga, "eskatutako zenbatekoa" laukitxoan datorrena, aplikatuko da.

– Edonola ere, 2.500,00 euroko muga orokorra ezarriko da.

Zortzigarrena- Ebazpena

1- Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu- Balorazio batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz, eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

2- Eskatzaileari ez zaio entzunaldiko izapiderik eskainiko, ebazpenean eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko.

3- Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen- Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4- Esleipen ebazpenean zehaztu behar da zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5- Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den- Gainera, ebazpenaren berri emango zaie onuradunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42- eta 43- artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

6- Diru laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42- eta 43- artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

7- Hainbanaketa aplikatzearen ondorioz gutxituz gero jasotzekoa den dirulaguntza, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 25- artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, onuradunari eskaera berriro egitea eskatu ahal zaio, konpromisoak eta baldintzak egokitu ditzan eman dakioken dirulaguntzara.

8- Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du- Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8- artikuluan xedatutakoaren arabera- Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123- artikuluan xedatutakoarekin.

Bederatzigarrena- Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

1- Ebazpena eman ondoren ordainduko da dirulaguntza.

Justifikazio hori Kirol Zerbitzuaren buruak adostuko du.

2- Lortutako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordainduko da dirulaguntza.

2019ko azaroaren 15era arteko epean aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

3- BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu behar da, non aitortzen den erakundeak izaera soziala duela, BEZaren Foru Arauaren 20.3 artikuluan aurreikusten dena, BEZaren Foru Arauaren 20.1 artikuluko 14- idatz zatian jasotako zerga salbuespena aplikatzeko.

Hamargarrena- Dirulaguntzen bateraezintasuna

Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiaren beste sail batzuetatik edo haiei atxikitako erakundeetatik jasotako dirulaguntzekin, nola eta ez dituzten baimendu bi erakundeek batera.

Hamaikagarrena- Publizitatea

1- Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2- Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea

Arabako kirol federazioentzako diru-zuzkidura.

2019

Dotación federaciones deportivas alavesas.

Solicitud

Euskera, Kultura eta Kirol
SailaDepartamento de
Euskera, Cultura y Deporte

ASUN

(Administrazioak betetzeko A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA O SOLICITANTE

Identifikazio agiria Documento identificativo IKZ CIFIdentifikazio zk. N° identificativoSozietatearen izena Razón socialHelbidea (kalea) Domicilio (calle)Zk.

Núm.

Letra

Eskra.

Escal.

Solairua

Piso

Aldea

Mano

Herraldea PaísProbintzia ProvinciaUdalerría MunicipioHerria LocalidadP. K. C. P.Posta elektronikoa Correo electrónicoTelefonoa TeléfonoMugikorra MóvilFaxa Fax

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA O DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute No rellenar si coincide con los datos de la entidad solicitante)Helbidea (kalea) Domicilio (calle)Zk.

Núm.

Letra

Eskra.

Escal.

Solairua

Piso

Aldea

Mano

Herraldea PaísProbintzia ProvinciaUdalerría MunicipioHerria LocalidadP. K. C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA O REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da Obligatorio para las personas jurídicas)Identifikazio agiria Documento identificativo NAN

DNI

 AIZ

NIE

 Besteren bat

Otro

Identifikazio zk. N° identificativoSexua Sexo Emakumea

Mujer

 Gizona

Hombre

Izena NombreLehen abizena Primer apellidoBigarren abizena Segundo apellidoPosta elektronikoa Correo electrónicoTelefonoa TeléfonoMugikorra MóvilFaxa Fax

Orria ■ Hoja 1/6

Eskatzailearen helbidea: Dirección de correspondencia
<https://e.s.araba.eus/wnp/portal/consultacoe>Zurtagiriaren zk. Código de Verificación
BYDH-IET-EU3C-PIK52



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea**Arabako kirol federazioentzako diru-zuzkidura.****2019**

Dotación federaciones deportivas alavesas.

Solicitud

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA O
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

Izen-abizenak O Nombre y apellidos	
NAN O DNI	
Entitatea O Entidad	
IFK O CIF	
Kargua O Cargo	


.....
(Lekua eta data O Lugar y fecha)

Sinadura O Firma _____ (zigilua O Sello)

Berariaz baimena ematen dut neure datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta laguntza ekonomiko honen tramitazio eta kontrola kudeatzeko helburuz bada. Expreso mi consentimiento para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para las finalidades de gestionar la tramitación y control sobre esta ayuda económica.

<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(AURREKO ALDEAN)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(ANVERSO)</p>	<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(ATZEKO ALDEAN)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(REVERSO)</p>
--	---

Orria ■ Hoja 2/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Eskabidea</p> <p>Arabako kirol federazioentzako diru-zuzkidura.</p> <p>2019</p> <p>Dotación federaciones deportivas alavesas.</p> <p>Solicitud</p>
	<p>Euskera, Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Euskera, Cultura y Deporte</p>

BANKUEN DATUAK O DATOS BANCARIOS

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik O Complimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA O BANCO	
IBAN	SWIFT

<p>(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) O (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)</p> <p>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) O</p> <p>Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p>(ESKATZAILEAK bete behar du) O (A rellenar por la persona SOLICITANTE)</p> <p>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua O</p> <p>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan</p> <p>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>
--	---



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea**Arabako kirol federazioentzako diru-zuzkidura.****2019**

Dotación federaciones deportivas alavesas.

Solicitud

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

MATERIALAREN DATUAK O DATOS DEL MATERIAL

Materialaren izena O Denominación del material	
Instalazioa O Instalación	
Erosketaren justifikazioa O Justificación de su compra	

AURREKONTUA O PRESUPUESTO

Gastuen O Gastos

Sarrerak O Ingresos

Eskatutako zenbatekoa O Importe solicitado

Gastuen O
Gastos

GASTU O GASTOS	Zenbatekoa O Importe
a) Materiala ez suntsikorra O Material inventariable.	
GASTUEN GUZTIRA O TOTAL GASTOS	

Sarreren aurrekontua O
Presupuesto de Ingresos

	Zenbatekoa O Importe
SARRERAK GUZTIRA O TOTAL INGRESOS	

Orria ■ Hoja 4/6



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea

Arabako kirol federazioentzako diru-zuzkidura.

2019

Dotación federaciones deportivas alavesas.

Solicitud

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

ENTITATEAK AITORTUTAKO DATUAK O DATOS DECLARADOS POR LA ENTIDAD

(Adierazi dagokiona Marcar lo que corresponda)

<input type="checkbox"/>	Entitateak EZ du soldatapeko langilerik ■ La entidad NO tiene personal asalariado
<input type="checkbox"/>	Entitateak soldatapeko langilerik ba du ■ La entidad tiene personal asalariado
<input type="checkbox"/>	Zerga betebeharrak egunean ditu ■ Se encuentra al corriente de obligaciones fiscales
<input type="checkbox"/>	Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ditu ■ Se encuentra al corriente de obligaciones con la Seguridad Social
<input type="checkbox"/>	Gizarte Segurantzaren ziurtagiria erantsita doa ■ Se acompaña certificado Seguridad Social
<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzaileak jasandako BEZaren kuota konpentsatu edo berreskuratzeko eskubidea dauka ■ La entidad solicitante tiene derecho a compensar o recuperar la cuota de IVA soportada
<input type="checkbox"/>	BEZaren salbuespenaren ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana (baldin eta alde aurretik aurkeztu ez bada) edo erakundeko presidentearen kargua doakoa delako adierazpena ■ Certificado de exención de IVA expedido por la administración tributaria competente (si no ha sido presentado anteriormente) o declaración del carácter gratuito del cargo de presidente de la entidad
<input type="checkbox"/>	Erakunde onuradunak agintzen du onik zainduko duela eskuratutako ondasuna eskuratu eta hurrengo hiru urteetan, bai eta epe horretan ez duela inbertsioaren xedea aldatuko ere La entidad beneficiada se compromete a mantener el bien adquirido en perfecto estado de conservación al menos los tres años siguientes a su adquisición, y de no variar la finalidad de la inversión en dicho plazo

(Tokia eta data Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura Firma de la persona solicitante/representante

Orria ■ Hoja 5/6



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Eskabidea

Arabako kirol federazioentzako diru-zuzkidura.

2019

Dotación federaciones deportivas alavesas.

Solicitud

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titularitasuneko Kirolariak izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua kirol jarduera eta entitateekin zerikusia duten bekak eta dirulaguntzak kudeatzeko, kirol prestakuntzako ikastaroak egiteko, jarduerak ikuskatzeko eta iradokizunak kudeatzeko egiten da. Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzenduz, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOk aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakarren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT

LEHENENGOA.

Ez ordezkatzin dudan elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela sexua dela eta inor baztertzin, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.

Ez ordezkatzin dudan elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela zigorrik izan, ez arlo penalean ez administratiboan, sexua dela eta inor bazterteagatik, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloko xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. Nos facilita van a ser incluidos en el Fichero Deportistas titularidad de Diputación Foral de Alava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de concesión de becas y subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas, realización de cursos de formación deportiva, inspección de actividades y gestión de sugerencias. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Nota (4)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

SEGUNDO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

Orria ■ Hoja 6/6